

# PLANTILLA ORGANICA 2015

## Valoración de Comités de Laborales y Funcionari@s

En relación a la Propuesta de Plantilla Orgánica 2015 que nos ha entregado Alcaldía ponemos en su conocimiento las siguientes consideraciones:

1.-Desde el año 2011 no se ha producido OPE en el Ayuntamiento de Barañain. Se está produciendo un progresivo envejecimiento de la Plantilla con las consecuencias que de ello se derivan (absentismo, ITs...), en una localidad que cada vez presenta mayores necesidades de mantenimiento y servicios.

Se alega que por imperativo legal no se pueden realizar contrataciones de personal, y mientras observamos que otras Administraciones Locales, e incluso la Adm. Foral, sí están realizando contrataciones. Aquí se está optando por dar salida a la carga de trabajo a través de las horas extraordinarias.

Si la Plantilla actual está sobredimensionada, como algunos afirman, ¿porqué cada vez más horas extraordinarias? ¿Porqué cada vez más contrataciones externas?

La OPE del 2011 tiene 4 años de vigencia legal para su ejecución, es previa a los Decretazos de Madrid y por tanto está blindada jurídicamente. En el 2015 CADUCARÍA. Dicha OPE haría disminuir la eventualidad en la plantilla, solventaría en buena medida las necesidades de personal y generaría unos servicios públicos de mayor calidad.

EN CONSECUENCIA, SOLICITAMOS QUE SE HAGA EFECTIVA EN EL 2015 Y EN SU TOTALIDAD LA OPE DEL 2011, antes de que caduque, cubriendo todas las vacantes.

2.-En este Ayuntamiento y en ésta legislatura ya ha quedado demostrado con el intento de amortizar la plaza de oficial soldador y de privatizar los trabajos de soldadura, que era y es más costoso para las arcas municipales, y por tanto para la ciudadanía, contratar servicios externos que dar salida a los trabajos con personal municipal. Recientemente puede volverse a demostrar con la renovación de bancos.

NO ACEPTAMOS que en la Propuesta de Plantilla Orgánica 2015 se nos intente vender, sin número o estudio alguno que lo justifique, la AMORTIZACIÓN de dos plazas en el Área de Bienestar Social e Igualdad (10.4 y 10.5) en beneficio de una empresa privada.

Éste Ayuntamiento tiene pendiente, y constituye una de nuestras demandas, la realización de un Estudio Económico sobre las actuales privatizaciones (limpieza viaria, limpieza colegios, Polideportivo...), de tal forma que se determine objetivamente si las mismas son más rentables, o no, para el Ayuntamiento que afrontar esos servicios con personal público. De hecho, estamos asistiendo en otros Ayuntamientos a un progresivo rescate municipal de servicios privatizados toda vez que mediante Estudios se va demostrando, más allá de dictados ideológicos, que no son rentables (por no decir que en demasiadas ocasiones han sido fuente de amiguismos y corruptelas).

En la Comisión Paritaria hemos solicitado de forma reiterada la necesidad de designación expresa y oficial de un técnico que realice el control del cumplimiento de pliegos por parte de las contratadas. Es demasiado fácil presentarse ante el Ayuntamiento como “rentable” cuando se ofertan servicios o compromisos en los Pliegos que luego no se cumplen: Nos consta, por poner algún ejemplo, que ISN no ha cumplido el Pliego en relación a las sustituciones de personal ofertadas, que han existido retrasos injustificados en el pago de nóminas...o que CESP/ Ferrovial no ha contratado a las 4 personas que ofertó para la recogida otoñal de la hoja (trabajo que, por cierto, también está realizando el personal municipal de la brigada de urbanismo). La falta de mecanismos de control técnico también ha generado dobles gastos; se ha venido contratando a Linsa para acometer las limpiezas y desciegos de sumideros en instalaciones municipales y resulta que ISN lo tenía incluido en su oferta del Pliego, por ejemplo.

3.-La Propuesta de Plantilla Orgánica 2015 es además engañosa, ya que una cosa es la relación de puestos de trabajo que se detallan y otra la relación de personas que realmente están trabajando. Denunciamos, una vez más, que como norma no se están sustituyendo las bajas por IT, ni los permisos sin sueldo, excedencias...Ni siquiera las situaciones de larga duración. Las “vacantes” de la Plantilla han dejado de ser situaciones provisionales para convertirse en definitivas. Las pocas sustituciones que se están realizando se hacen mayoritariamente con personas del Programa de Empleo Social, sin cumplir los perfiles profesionales y/o lingüísticos que se determinan en Plantilla Orgánica, incluso incumpliendo el objeto mismo del Programa de Empleo Social. Nos caben serias dudas sobre si se está cumpliendo la propia normativa laboral vigente cuando se sustituye a un Conserje de Colegio, o a un Ordenanza del Ayuntamiento o de la Casa de Cultura, con personal de Empleo Social.

A base de no sustituir al Personal municipal, a mediados de Noviembre apenas se ha ejecutado el 80% del Capítulo de Personal del Presupuesto Municipal. Si dicho Capítulo Presupuestario ya contó en su aprobación con todos los recortes y austeras bendiciones...cumpliendo los requisitos de déficit público...¿a qué viene seguir sin querer gastar lo ya presupuestado en Empleo Público? ¿Cuántos empleos, siquiera temporales, podrían haberse creado ejecutando el 100% del Presupuesto, con una política real de sustituciones, reduciendo las horas extra previsibles y planificables? ¿Quién y cómo se lo explica a l@s parad@s de Barañain?

Por todo ello, urge que se cumpla la Plantilla Orgánica que resulte aprobada, de tal forma que venga acompañada de un compromiso escrito para que se aplique una política real de cubrición de vacantes y sustituciones de personal, respetando los perfiles profesionales y lingüísticos de quien vaya a ser sustituid@.

4.-En la Propuesta de Plantilla Orgánica 2015 siguen apareciendo dos plazas, 5.3 y 7.14, cuyos titulares debieran estar en justicia disfrutando de su jubilación parcial. En su lugar dos personas paradas deberían estar disfrutando de un contrato relevo. El equipo de gobierno no cumple en éste asunto el mandato democrático del Pleno Municipal, ni con lo firmado en el Convenio vigente de Laborales. Las sentencias que sobre el particular se han producido éste año constatan, a nuestro juicio, que el problema de que no se estén cumpliendo las Jubilaciones parciales/ contratos relevo en el Ayuntamiento de Barañain reside

exclusivamente en la falta de voluntad de Alcaldía y su Grupo UPN.

Durante éste año, otros Ayuntamientos de la Comarca (Orcoyen, Villava, Ansoain...) están realizando jubilaciones parciales y contratos relevo...sin que los respectivos grupos de UPN o el propio Gobierno de Navarra haya interpuesto recurso de ilegalidad alguna.

El Ayuntamiento de Barañain está negando a sus empleados éste derecho, mientras que, con dinero público, los empleados de las empresas privadas subcontratadas sí se están acogiendo a jubilaciones parciales con contratos relevo.

Demandamos que en la Plantilla Orgánica 2015 se reconozca de modo explícito el derecho que tienen los titulares de las plazas 5.3 y 7.14 para acogerse a la jubilación parcial/contrato relevo.

5.- Promoción a la categoría de Conserjes, de las plazas de portero y ordenanza de Casa de Cultura. En la Plantilla Orgánica 2014 se promocionó directamente a la categoría de Conserjes a los porteros de los colegios públicos (plazas 11.28, 11.29 y 11.30). La medida no resulta comprensible si no se promocionan en la Plantilla 2015 el resto de plazas en idéntica situación (8.7 y 8.8).

6.-El Nivel/Categoría E ya no existe como tal en las Administraciones Públicas de referencia, mientras que si se mantienen en la Propuesta de Plantilla Orgánica que nos ocupa (plazas 5.7, 7.18, 7.23, 7.24 y 7.25). Instamos a la debida adecuación del nivel en las citadas plazas.

7.- Establecer en la plantilla orgánica de 2015 la plaza 8.11 de oficial administrativo del área de Cultura para el área de Cultura, como ha venido siendo, y establecer una plaza (9.2.) de oficial administrativo para el área de Deportes, como ha venido siendo y subsanar así el error cometido desde la fecha de la constitución de la OAC.

8.-Plantilla Orgánica de la Escuela Municipal de Música: Nos sumamos a la petición formulada en la Comisión Técnica Cualificada para que se traslade la realidad actual al papel y se incluya el conocimiento de Euskara en la plaza 11.7 (profesor de lenguaje musical). De hecho la Escuela de Música ya oferta Lenguaje Musical en Euskara, además de en castellano, dado que el profesor titular de la plaza es bilingüe.

Sin otro particular, manifestándole nuestra disponibilidad para aclarar o ampliar cuantas cuestiones precise, atentamente.

Barañain, 26 de Noviembre 2014

Por el COMITÉ LABORALES

Por el COMITÉ FUNCIONARI@S

Fernando Biurrun, Oskar Larrea, Iñaki Nieto y Lucia Sesma

Ana Diez, Patxitxo Sainz y Pedro J. Bayano

# 2015eko PLANTILLA ORGANIKOA

## Langile kontratudun eta Funtzionarioen Komiteen balorazioa

Alkateak eman digun 2015eko Plantilla Organikoaren proposamena dela eta, gure iritzia jakinarazten dizugu:

**1.-** Barañaingo Udalak 2011n onartu zuen bere azken Lan Eskintza Publikoa (LEP). Egun daukagun Plantilla zahartzen ari da, horrek dituen ondorioekin (absentismoa, bajak...), mantentze lanen eta zerbitzuen aldetik gero eta behar gehiago dituen herri batean. Udalak erantzuten digu legearen aginduz ezinezkoa duela langile kontrataziorik egin, baina aldi berean beste administrazio batzuk, Udalak eta Nafar Administrazioa barne, kontratazioak egiten ari direla ikusten ari gara. Hemen, Barañaingo Udalean, lan beharrei ordu estrak egitearekin ematen zaio irteera.

Batzuen esanetan egungo Plantilla gehiegizkoa omen bada, zergatik gero eta ordu estra gehiago? Zergatik gero eta lan gehiago kanpoko enpresa pribatuei eman? 2011ko LEPak legez 4 urtetako epea dauka indarrean jartzeko, Madriletik jasotako Dekretazoen aurrekoa baita, eta, berez, legezko sostengu osoa dauka. Datorren urtean (2015) indarra galduko luke, epea amaituko baitzaio. Eskuardean daukagun LEPak Plantillaren iraunkortasun eza egoera txikiagotuko luke, jasaten ari garen langile beharrak gutxituta eta, ondorioz, kalitate handiagoko zerbitzu publikoak eskaintzea erraztuko luke.

Hori guztia dela eta, legezko epea pasatu aurretik, Plantilla Organikoan azaltzen diren bakante guztiak betez, **DATORREN URTEAN (2015) 2011ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOA GARATZEA, BETETZEA, ESKATZEN DUGU.**

**2.-** Udalean, eta legealdi honetan, soldatzaile plaza amortizatzeko eta lan behar hori pribatizatzeko egin zen saiakeraren aurrean, Udalaren kutxarako -hiritarrentzat beraz- dauden lan beharrak udal langileekin aurrera ateratzea merkeago zela eta dela frogatuta geratu zen. Azken hilabeteetan, berriro ere, gauza bera frogatu ahal izan da kaleko bankuen berrikuntza lanekin.

Gure **EZETZA BOROBILA** azaltzen diegu 2015eko Plantilla Organikoaren proposamenean, inolako azalpen ekonomiko edo azterketarik gabe hura justifikatzeko, Ongizate eta Berdintasun Arloko bi lanpostu publikoak **AMORTIZATZEA (10.4 eta 10.5)**, enpresa pribatu baten mesedetan, hobe dela

saldu nahi digutenei.

Gaur egun indarrean dauden pribatizazioei buruzko Ikerketa Ekonomikoa egiteke du Udalak, eta horixe da hain zuzen gure eskaeretako bat (kaleen garbiketa, ikastetxeetako garbiketa, kiroldegia...). Modu horretan sakonki aztertu ahal izango genuke zer den errentagarriagoa; dauden lan beharrei pribatizazioen bidez erantzutea ala langile publikoekin aurre egitea haiei. Berez, inguruetakoa beste Udal batzuk, Ikerketa Ekonomikoak egin ostean eta diktatu ideologikoak alde batera utzita, jada pribatizatuak zeuden zerbitzu edo lanak berreskuratzea erabaki dute, errentagarriak ez direla frogatu izan delako (kasu gehiegitan pribatizazioen atzean ustelkeria hutsa besterik ez dela egon esan bagenezake ere).

Kontraten Baldintza edo Pleguetan eskainitakoa, adostutakoa, betetzen ari dela ziurtatzeko espresuki eta ofizialki tekniko bat izendatzearen beharra mahai gainean jarri dugu behin eta berriro ere. Udalaren aurrean errentagarri moduan agertzea oso erreza da Pleguetan agertzen diren baldintzak betetzeko kontrolik ez dagoenean, eta berez betetzen ez direnean. Adibideren bat aipatzearen, honako hau: jakin badakigu ISNek langileen ordezkapenen inguruan eskaini zuena ez duela bete, edo justifikaziorik gabeko atzerapenak egon direla langileen soldatak ordaintzeko momentuan... edo, honako beste hau, CESP/A/Ferrovialek udazkeneko hostoa biltzeko lanetarako ez dituela kontratatu eskainitako 4 lanpostu berriak (hosto bilketa lan hau, egun, hirigintza arloko udal langileek ere egiten dutelarik). Kontrolerako baliabide tekniko ezak kasu batzuetan kostu bikoitzak eragin dizkio Udalari; udal instalazioetako isurbideen garbiketa eta hodiak libratzeko LINSAREN zerbitzuak kontratatu izan dira urteetan zehar, ISNek bere Pleguetan zerbitzu hori bera eskaintzen zuen bitartean, adibidez.

**3.-** Paperean agertzen diren lanpostuak eta errealitatean, egunerokotasunean, lanean ari garen langileen kopurua ezberdina den neurrian, 2015eko Plantilla Organikoaren proposamena engainagarria dela iruditzen zaigu. Eszedentziak, soldatarik gabeko baimenak, ezgai egoerak (bajak)... norma moduan ordezkatzeko ez direla salatzen dugu berriro ere. Berez, ez dira ari ordezkatzeko ezta epe luzeko bajaldiak. Plantillan agertzen diren "bakanteak" behin-behineko egoera bat definitu ordez, egoera iraunkor bat definitzen dute gaur egun. Egiten diren ordezkapen gutxien artean, gehienak Lan Babestuko programako langileen bitartez egiten dira, Plantillan agertzen diren profil profesional eta hizkuntzari dagozkionak errespetatu gabe, eta Lan Babestuko Programaren helburua bera bete gabe. Lan Babestuko langileekin Kultura Etxeko edota Eskola bateko Etxezainak, edota Udaletxeko Ordenantzak ordezkatzeko direnean, indarrean dagoen lan legeria zein neurritan betetzen den ikusteke legoke; guk gure zalantzak ditugu.

Udal langileak ez ordezkatzeko jarreraren ondorioz, azaroaren erdialdean Udal Aurrekontuetako Langile Arloan soilik %80 gastatu da. Aurrekontuetako Arlo hau onartu zenean, jasan beharreko murrizketa guztiak jasoak baitzituen jada, austeritate bedeinkapenak barne... defizita publikoari dagozkion baldintzak bete baitzituen... zertara dator Enplegu Publikorako Aurrekontuetan definitu zena ez gastatzea? Ordu estrak murriztuz, ordezkapenatarako politika arduratsua erabiliz, Aurrekontuetan definitu zenaren %100 gastatuz, behin-behineko zenbat lanpostu sortu ahal izan ziren? Nork eta nola azalduko die Barañaingo langabetuei?

Hori guztia dela eta, premiazkoa da onartzen den Plantilla Organikoa benetan betetzea. Horretarako, lanpostuen ezaugarri profesional eta hizkuntzari dagozkionak errespetatzen dituen ordezkapen politika arduratsu baten aldeko idatzitako konpromiso bat agertzea ezinbestekoa ikusten dugu.

**4.-** Bi lanpostu agertzen dira oraindik 2015eko Plantilla Organikoaren proposamenean (5.3 eta 7.14) eta horiek betetzen dauden langile titularrek, justizia osoz, behin-behineko erretiro partzialaz disfrutatzen egon beharko lukete. Eta, era berean, haien ordeztu, bi langabetu egon beharko lukete ordezte kontratuekin. Gai honetan, Gobernu Taldea ez da betetzen ari Udaltzako duela urtebete agindu ziona, ezta Laboralen Lan Hitzarmena ere. Urte honetan zehar sortu diren epaiek oso agerian utzi dute, gure ustetan, Barañaingo Udalean erretiro partzial/ordezko kontratuak ez direla ari betetzen, Alkatea eta UPNko bere taldearen nahia edo borondate falta hutsagatik.

Urte honetan zehar, aldi berean, Iruñerriko beste Udal batzuk (Orkoien, Atarrabia, Antsoain...) erretiro partzial/ordezko kontratuak gauzatu dituzte... Udal horietako UPNko taldeek, edota Nafarroako Gobernuak, inolako salaketa edo errekurtsorik aurkeztu gabe.

Barañaingo Udalak bere langile propioei eskubide hau ukatzen dien bitartean, diru publikoarekin azpikontrataturik dituen enpresa pribatuetako langileentzat erretiro partziala/ordezko kontratua izateko aukera ematen du.

2015eko Plantilla Organikoan 5.3 eta 7.14 lanpostuen titularrak ordeztu kontratu/erretiro partzialerako duten legezko eskubidea modu zehatzean onartuta izan dadin eskatzen dugu.

**5.-** Kultura Etxeko Atezaina eta Ordenantza, Etxezain edo "kontserje" mailara sustatuak izatea eskatzen dugu. Zuzen-zuzenean sustatu ziren "kontserje" mailara 2014ko Plantilla Organikoan Eskoletako atezainak (11.28, 11.29 eta 11.30).

Neurria ez da izango batere ulergarria, egoera berberan dauden gainontzeko lanpostuak ez badira sustatzen 2015eko Plantillan (8.7 eta 8.8).

**6.-** Administrazio Publikoetan E maila desagertuta dago berez, baina Barañaingo Udalaren Plantillan E mailako lanpostuak agertzen dira oraindik orain (5.7, 7.18, 7.23, 7.24 eta 7.25). Beraz, lanpostu horiei dagokien maila ezarri dadila eskatzen dugu.

**7.-** Ezartzea 2015eko Plantilla Organikoan, orain arte izan den bezala, Kultura Arloko ofizial administrari 8.11 lanpostua Kultura arlorako. Era beran, eta kasu honetan Herritarrak Hartzeko Bulegoa (OAC bulegoa) sortu zenetik mantentzen den akatsa zuzentzeko, ager dadila Kiroletako arloan ofizial administrari 9.2 lanpostua Kiroletako arlorako.

**8.-** Musika Eskolako Plantilla Organikoa: Errealitatean gertatzen ari dena (Musika Hizkuntza erdaraz eta euskaraz eskaintzen eta irakasten dela, irakasle titularra euskalduna baita), paperetan islatzea eskatzen dugu, 11.7 lanpostuan euskararen ezagutza beharra definituz, Batzorde Tekniko Kualifikatuaren bileran egin zen eskaerarekin bat eginez.

Besterik gabe, edozein gauza argitzeko edo zabaltzeko zure esku gaituzula gogoratzen dizugu. Agur bero bat.

Barañain, 2014ko abenduaren 4a.

LABORALEN KOMITEA Fernando  
Biurrun, Oskar Larrea, Iñaki  
Nieto y Lucia Sesma

FUNTZIONARIOEN KOMITEA  
Ana Diez, Patxitxo Sainz y Pedro J.  
Bayano